

# Geo-klima eta ingurumena

230302-1(b2) jarduera

IKERKETA

Barreiadurako parametro estatistikoak

Zailtasuna: III.

Orain Arabako eta Gipuzkoako tenperatura maximoak eta minimoak alderatuko ditugu, horrela bi lurraldeetako klimak alderatzeko azterlana egin ahal izango dugulako.

2007	Tenperatura (° C)				
	Batez bestekoa	Batez besteko gehienekoa	Batez besteko gutxienekoa	Gehieneko absolutua	Gutxieneko absolutua
<b>ARABA</b>					
Abetxuko	11,4	17,2	6,4	36,6	-8,2
Alegria	10,8	16,0	6,0	35,6	-10,8
Altube	11,1	16,4	6,4	36,6	-8,5
Arkaute	10,9	16,6	5,7	36,2	-11,3
Espejo	13,1	19,7	7,3	39,2	-6,9
Gardea	12,6	18,2	8,1	37,3	-4,9
Gorbea	10,8	16,3	6,3	34,7	-5,9
Herrera	8,0	11,6	4,9	30,0	-6,7
Iturrieta	8,7	13,6	3,9	34,1	-13,0
Kapildui	:	:	:	:	:
Llodio	12,8	18,0	8,7	37,9	-4,8
Navarrete	9,1	14,9	3,7	33,9	-10,5
Ozaeta	10,3	16,2	4,9	34,9	-11,7
Páganos	12,0	17,4	7,3	35,6	-6,2
Salvatierra	10,7	16,5	5,4	36,5	-14,7
Saratxo	11,4	16,8	6,8	36,3	-7,3
Subijana	11,7	18,0	6,2	39,6	-8,0
Vitoria-Gasteiz	12,3	16,9	8,4	37,1	-6,0
Zaldiaran	8,0	12,2	4,8	32,2	-8,8
Zambrana	11,8	17,9	6,4	37,3	-7,9

2007	Tenperatura (° C)				
	Batez bestekoa	Batez besteko gehienekoa	Batez besteko gutxienekoa	Gehieneko absolutua	Gutxieneko absolutua
<b>GIPUZKOA</b>					
Agauntza	11,8	17,2	7,5	35,2	-6,7
Aitzu	11,8	16,7	7,6	35,3	-5,9
Aixola	11,5	16,3	7,5	33,9	-5,1
Aizarnazabal	13,3	17,7	9,5	35,7	-3,7
Alegia	13,1	18,5	9,0	37,4	-5,6
Altzola	12,8	17,9	8,9	35,6	-3,8
Amundarain	12,4	17,8	7,9	36,9	-7,3
Andoain	13,5	18,4	9,4	35,5	-4,9
Añarbe	11,9	17,2	7,6	34,2	-7,1
Arrasate	12,5	17,7	8,4	37,1	-5,7
Belauntza	12,4	17,6	8,4	36,8	-6,1
Berastegi	11,4	16,2	7,1	35,5	-12,9
Bidania	10,8	14,7	7,6	33,7	-5,0
Ereñozu	12,9	17,3	9,4	33,4	-4,4
Estanda	12,1	17,5	7,9	35,8	-6,2
Ibai Eder	13,1	17,6	9,1	36,9	-4,5
Jaizkibel	11,7	15,1	9,1	35,2	-6,5
Lasarte	13,9	18,1	10,4	37,3	-1,6
Leizaran	12,3	16,9	8,4	34,5	-8,1
Matxinbenta	12,1	16,8	8,1	34,6	-5,7
Oiartzun	14,1	19,6	9,8	37,3	-4,1
Oñati	12,3	17,8	7,9	36,9	-5,8
Ordizia	12,9	18,3	8,6	37,4	-6,2
San Prudentzio	12,7	17,8	8,6	36,8	-5,1
Urkulu	12,0	17,0	8,2	36,2	-4,5
Zarautz	12,9	16,6	9,9	35,2	-2,7
Zegama	11,5	15,4	8,2	34,3	-4,3
Zizurkil	13,4	17,6	10,0	36,8	-5,4

# Geo-klima eta ingurumena

❖ Aurreko taulak kontuan hartuta, kalkula ezazu zein den banaketa bakoitzaren tenperatura maximo eta minimo absolutuen arteko batezbestekoa, batez besteko desbiderapena, bariantza eta desbiderapen tipikoa.

Dagoeneko badakigu batez besteko balioa eta batez besteko desbiderapena kalkulatzeko, baina zalantzarik baduzu jo ezazu hurrengo helbidera:

[http://es.wikipedia.org/wiki/Media\\_aritmética](http://es.wikipedia.org/wiki/Media_aritmética) (batezbesteko aritmetikoa kalkulatzeko) eta

[http://es.wikipedia.org/wiki/Desviación\\_media](http://es.wikipedia.org/wiki/Desviación_media) (batez besteko desbiderapena kalkulatzeko).

Bariantza eta desbiderapen tipikoa kalkulatzeko prozedurak hemen aurki ditzakezu:

[http://es.wikipedia.org/wiki/Desviación\\_estándar](http://es.wikipedia.org/wiki/Desviación_estándar)

Kalkulu-orriak erabiltzen badakizu, hautatu "VAR eta "DESVEST" (bakoitzari dagokiona) funtzioak eta gero hartu kalkulua egiteko behar duzun datu-multzoa.

Garrantzitsua da emaitza hauek ondo erabiltzea gero aztertzen ari garen banaketei buruzko ondorioak atera ahal izateko. Batez besteko desbiderapena, bariantza eta desbiderapen tipikoa bezalako balioek banaketa bat batez bestearekiko oso taldekatuta dagoen edo batere taldekatuta ez dagoen esango digute.

Guk dagoeneko egin ditugu eskatu dizkizugun kalkuluak, kalkulu-orri bat erabiliz. Eta hurrengo emaitzak lortu ditugu:

Batezbestekoa	41,30
Batez besteko desbiderapena	1,66
Bariantza	5,03
Desbiderapen tipikoa	2,24
Lurraldea:.....	

Batezbestekoa	44,40
Batez besteko desbiderapena	2,48
Bariantza	10,42
Desbiderapen tipikoa	3,23
Lurraldea:.....	

❖ Esan zein den banaketa bakoitzari dagokion datu-multzoa.

❖ Non uste duzu dela maximoaren eta minimoaren arteko tenperatura aldaketa handiena? Zergatik?

❖ Lurraldeetan banatzen da aldaketa hori modu homogeenagoan? Zergatik?

❖ Orain interpretatu datu horiek, aztertu diren bi banaketak alderatuz.